

Augustin Chaho: abertzaletasuna eta Foruak, edo Eskubide Historikoen sortzaileetako bat¹

Ezeizabarrena Saenz, Xabier²

Chaho-renganako hurbilketa honetan, metafora bat egiten badugu, politikako eta zuzenbideko kontzeptuak aipatu daitezke. Izan ere, Euskal eskubide historikoek laburbiltzen dute itunaren nortasuna testuinguru historikoan: eta, bertan, Chahok foruen alde gogor egin zuen, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Egun, Euskal eskubide historikoak zuzenbideko segidako dokumentuetan ageri dira: Gernikako estatutuan eta Espainiako Konstituzioan. Beraz, neurri batean, Euskal Herriko “Konstituzioak” dira.

Giltza-Hitzak: Augustin Chaho. Nafarroa. Euskal Herria. Abertzaletasuna. Foruak. Euskal Eskubide Historikoak.

Dans cette approche de Chaho, en recourant à une métaphore, nous pourrions mentionner certains concepts de la politique et du droit. En effet, les droits historiques basques résument l'identité de l'accord dans le contexte historique et, dans ce sens, Chaho était très favorable aux “ fueros ”, tant au Nord qu'au Sud. Aujourd'hui, les droits historiques basques apparaissent dans les documents juridiques suivants : le Statut de Guernica et la Constitution Espagnole. Que l'on peut donc considérer, en quelque sorte, les “ Constitutions ” du Pays Basque.

Mots-Clés : Augustin Chaho. Navarre. Pays Basque. Patriotisme. Fors. Historicals Basque Rights.

En este acercamiento a Chaho, si utilizamos una metáfora, se pueden mencionar conceptos de la política y el derecho. De hecho, los derechos históricos vascos resumen la identidad del acuerdo en el contexto histórico: y, en él, Chaho estaba muy a favor de los fueros, tanto en el Norte como en el Sur. Hoy en día, los derechos históricos vascos aparecen en los siguientes documentos jurídicos: el Estatuto de Guernica y la Constitución Española. Así que, en cierto modo, son las “Constituciones” del País Vasco.

Palabras Clave: Augustin Chaho. Navarra. País Vasco. Patriotismo. Fueros. Derechos históricos vascos.

1. Esker anitz Alberto Ibarrola-ri bere laguntzagatik.

2. Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Zuzenbide Fak. Manuel de Lardizabal Ib., 2. 20018 Donostia. E-mail: xabi.ezeiza@icagi.net

1. HITZAURREA

Chahorenganako hurbilketa honen helburua honakoa da: Chahoren ideologia eta indar politikoak abertzaletasunaren muinean agertzea, betiere, Chahoren liburuan oinarrituz eta, batez ere, Nafarroako bidaiaren berri emateko liburuan oinarrituz. Hona hemen, Chahoren nortasuna: ekintza-gizona, arima irekikoa eta herri-eskubideen babesaren sortzailea.

Eta, hain zuzen ere, nortasun horren berri emango dut hitzaldi honetan, betiere, norberaren ikuspegitik berreskuratzeko abertzaletasunaren oinarriak eta, horretarako, Chahok Nafarroan zehar egindako bidaiari irudi batzuk baliatuko ditut. Oso gizon berezia izan zen Augustin Chaho, bitxia esango nuke eta Euskal Herriko altxor bat: idazlea, politikaria, abertzalea, ideia-sortzailea eta, agian, folklorista xumea izan zen Augustin Chaho. Gizon erromantikoa zen eta ikuspegi zabala zuen: Europa, Frantzia eta Euskal Herriari buruzko ikuspegi zabala zuen.

Nire hitzaldiari dagokionez, bi elementu nagusi lotu nahi ditu: alde batetik, Euskal eskubide historikoei buruzko azken urteotako nire ikerketak –bertan, politikako eta zuzenbideko kontzeptuak hartzen ditut kontuan– eta, bestetik, Chahoren liburu famatu baten irudiak lotu nahi ditu nire hitzaldiak.

Hain zuzen ere, liburuak Chahok Nafarroan zehar egindako bidaiaren berri ematen du: XIX. mendean egin zuen bidaia, zehazki, Euskal iraultzaren garaian. Nire ustez, liburuak, besteak beste, honakoen berri ematen du: itunaren ideia, Iparraldearen eta Frantziaren arteko itunak eta baita Hegoaldeko egoera ere.

Eta liburuan bertan, Chahok –askotan ikuspegi erromantikoa baliatuta– azpimarratzen du Euskal Herriko burujabetza gune historiko batean. Eta, horregatik, hain zuzen ere, uste dut –agian, metafora bat eginez– Chaho dela Euskal eskubide historikoen sortzaile bat eta, beharbada, bera ohartu gabe.

Chahok liburuan behin eta berriro aipatzen ditu gure askatasun politikoak. Eta, horixe, islatzen du liburuko irudietan, pertsonaiengan eta baita Frantziako Errepublikak duen askatasunaren irudian ere. Eta bertan ere, behin eta berriro foruak aipatzen ditu Chahok: lurralde bakoitzaren foruak eta zuzenbide publikoak, izan ere, horiek dira egungo eskubide historikoak: bai Euskal autonomia erkidegoan; bai Nafarroan; bai Iparraldean. Liburuan ez du itunaz edo burujabetzaz hitz egiten, baina hori ez da idatzi honetako gaia.

2. CHAHO-REN BIDAIAREN IRUDI BATZUK

Chahoren liburuak, “Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos” izenekoa, keinuz eta literatura erromantikoaz beteta dago. Egia esateko, liburuaren irudi askotan agertzen dira Euskal Herriko kontzeptu politiko eta juridikoak, eta, askotan Chaho beraren paisaia erromantiko edo mistikoa³.

3. CHAHO, Augustin. *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*, ed. Auñamendi, 1976.

Esate baterako, Baionan, bidaiaren hasieran, nahiz eta Chahok harreman estua zuen Frantziarekin, Frantziako gudariei kritika gogorra egiten die:

[...] desde el origen de las guerrillas navarras, hordas de innobles agentes habías ensuciado con su barro de París los matorrales de mis montañas. (11 orrialdean Auñamendi ed.)

Aldiz, Zumalakarregi aipatzen duen lehenengo aldian, honakoa dio Chahok:

[...] Me apresuré a encontrar un guía, impaciente de llegar al teatro de guerra tan gloriosa para nuestros hermanos españoles. (13 or.)

Eta pasarte horretan bertan, Chahok dio “soineko frantsesa eta euskal txapela” dar-mala soinean (13 or.).

Era berean, Chahok askotan berreskuratzen ditu irudi mitikoak: bai Euskal Herritarrei buruzkoak, bai Euskal Herriko ohiturei buruzkoak eta, batez ere, euskarari buruzko irudi mitikoak berreskuratzen ditu (23 or.). Eta, halaber, askotan, Euskal Herritarrok amodioan trebeak garela esaten du (27orr). Bere aipamen batzuk politikoagoak dira, hain zuzen ere, gizabanakoaren eta herrien nortasunari buruzkoak:

El vasco ejerce noblemente la hospitalidad, sea individualmente, sea como pueblo”. (33 or.)...
Todos sus movimientos salen del alma y sus ideas siguen a los hechos exteriores en orden de sucesión poética (34 or.)

eta antropologiari buruzkoak (35 or.); urari eta ardoari buruzkoak (36 & 37 or.) –gehiegikeria bat–; eta, azkenik, euskaldunon nekazal nortasunari buruzko aipamenak (38 or.).

Era berean, euskaldunon nazioarteko harremanak aipatzen ditu eta elkarrizketa batean honela dio:

[...] y veo que habla de los Bretones. Los conozco y son un poco sucios y sarnosos, pero de alma bella. He visto muchos en los ejércitos y he encontrado en ellos lealtad, franqueza y valor. Son los hombres de Francia con los cuales el Vasco simpatiza más y acaso los únicos en quienes busca amistad [...] (41 or.)

Beste pasarte batean euskaldunon anaitasuna edo, beharbada, foruen askatasuna aipatzen du:

Señor laburdino, si el gobierno francés, al intervenir contra Zumalakarregí, declarara una guerra de exterminio contra la libertad de nuestra raza, tengo motivos para creer que, en vez de avanzar contra sus hermanos españoles, los vascos de Francia no se retirarían ante una resolución atrevida, dictada por los intereses de su gloria. (42 or.)⁴.

4. Orain dela gutxiago ere, eta bertze helburuarekin batera, JUAN CRUZ ALLI-k, Espainiako Senatuan honakoa luzatu zion Felipe Gonzalez-i Euskal Herriko eskubide Historikoen nortasun bereziak aipatuz:

“un hipotético (y siempre posible) pronunciamiento del Tribunal Constitucional favorable a la tesis que sostiene el Gobierno, señor Presidente, supondría plantear una gravísima cuestión de Estado, puesto que atentaría de forma radical y sustancial a la soberanía fiscal navarra, a sus derechos históricos y al modo en que Navarra se ha venido integrando dentro del Estado, y que ha venido

Eta, segidan, beste behin ere gure historia eta nortasun politikoak aipatzen ditu:

[...] y durante más de treinta siglos de combates, la federación euskariana, atrincherada en sus montañas, ha sabido defender contra las hordas bárbaras la independencia originaria de sus repúblicas, sus costumbres y leyes patriarcales, los dialectos de su lengua primitiva y la gloria de su antigua nacionalidad. (46 or.)

Elkartasuna eta batasunarekin batera:

Los Navarros y demás Vascos se hallan hoy en armas al otro lado de los Pirineos para defender contra los imperialistas de Castilla sus nobles libertades y el individualismo de nuestra raza primitiva y solar [...]

Baina geroago Carlos jauna eta erregearen izena aipatzen du (46 or.)

Halaber, liburuaren beste pasarte batean Arabarren askatasuna du mintzagai eta, bertan, Chahok Done Emiliano Arabako foruekin lotzen du:

...

siendo reconocido por los diferentes regímenes desde que se dicta la Ley Confirmatoria de los Fueros de 1839.

En tal supuesto, señor Presidente, la Comunidad Foral de Navarra no iba a estar sola; cualquier pronunciamiento del Tribunal Constitucional que pusiera en duda o riesgo las facultades y derechos históricos de Navarra suscitaría, sin duda alguna y de forma inmediata, la plena solidaridad de las diputaciones forales, de los territorios históricos vascos y de su propio Gobierno. Todo ello provocaría un grave problema de enfrentamiento con el Estado". Diario de Sesiones del Senado, V Legislatura, Comisiones, Nº 128, 1994, orriak. 62 eta 63, Comisión General de las Comunidades Autónomas, 26-9-1994. (...)

"Señor Presidente (y con esto acabo), cuando se produjo esta impugnación hubo quienes, quizás desde un navarrismo exacerbado, pero no carente a veces de fundamento, recordaron un episodio que exactamente el año pasado había celebrado su centenario, la Gamazada. La Gamazada, que es un episodio que su señoría no conoce (y el señor Rubial sonríe, porque también lo conocen los ciudadanos de la Comunidad Autónoma vasca), fue muy importante en el respeto por parte del régimen liberal de los convenios económicos y de ese hecho diferencial que ha caracterizado a la foralidad vasca y a la foralidad navarra.

Desde el Gobierno de Madrid se pretendió imponer un sistema fiscal, sin contar con el pacto, sin contar con la negociación, y eso provocó, señor Presidente, una sublevación civil. Incluso hubo quien levantó una partida, pero se le mandó a casa. Y los navarros hemos recibido, como timbre de gloria, el ver que en el manifiesto foral que apoyó aquella oposición a la decisión del Gobierno de Madrid estaban nuestros abuelos, estaban nuestros bisabuelos. Somos, señor Presidente, un pueblo con memoria histórica, que la ejercitamos y la tenemos viva.

Y me voy a referir a una anécdota, y con esto acabo, señor Presidente. La primera vez que se lució en público una ikurriña fue de la mano de Sabino Arana en aquella manifestación apoyando desde el vizcainismo la defensa de la foralidad de Navarra.

Por eso, señor Presidente, cuando ayer hacía una referencia a un problema que puede convertirse en común, lo hacía, no con historicismos, sino recordando aquello de Cicerón de que la historia es la maestra de la vida, y aquello que también dijo alguien: que el pueblo que no tiene sentido de la historia está privado de tener sentido del porvenir.

Muchas gracias, señor Presidente. (Aplausos)".

Diario de Sesiones del Senado, V Legislatura, Comisiones, Nº 129, 1994, orriak. 31, Comisión General de las Comunidades Autónomas, 27-9-1994.

Tal vez trajera el santo desde la llanura alguna noticia que interesara a la libertad de los Alaveses [...] (51 or.)

Horietaz gain, Chahok honakoen aipamena egiten du: bai gure historiaren berri emateko idatzien gabezia, bai gure historiari buruz egindako manipulazioak (55 or.). Baina, berehala, berriro ere gure foruak edo eskubide historikoak aipatzen ditu:

[...] y fue preciso que los Bárbaros dejaran al indomable Euskariano gozar a la sombra del roble patriarcal y de sus peñas tutelares los placeres divinos de la libertad. (57 or.)

Gazte batekin ere, elkarrizketa ederra du Berarako bidean:

Mi padre me ha dicho que han violado sus fueros, sus derechos, porque los Navarros no deben nada a los reyes ni a las reinas y las Cortes de Pamplona tienen solas el derecho de fijar los impuestos. ¡Paciencia! Cuando termine la guerra, los Fueros de Navarra quedarán restablecidos como siempre. (61 or.)

Eta ume horrek beraren hitzak baliatuta –gudari baten moduan euskal ausardia aipatzen du:

500 nafar edo euskaldun, mila gaztelakoen aurka!!! Eta erdaldunak ez ziren ausartzen gure kontra!!! (62 or.)

Edonola ere, liburuaren beste irudi batzuetan, Chahok politikari pragmatikoa edo agian itunaren zalea ematen du:

¿Dónde estabais cuando los Euskaros, nuestros antecesores, poblaron la península y vieron florecer durante tres mil años en las provincias ibéricas los robles de sus doce repúblicas? Cuarenta siglos pasaron desde la invasión de los Celtas, y no habíais nacido aún, mientras nuestra raza, tan vieja como Europa, era ilustre en Occidente (161 or.) [...] Los Vascos, durante el gobierno de los emires, llevaron sus armas victoriosas hasta el corazón de España (163 or.) [...] no solo expulsaron a los moros de España, repoblaron en parte las provincias castellanas [...] (164 or.)

3. EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE HISTORIKOAK ETA ITUNAREN KONTZEPTUA

Europar Batasunaren prozesuak aukera paregabea eskaintzen digu Euskal Herriko eskubide historikoen egoera nahasia aztertzeko eta konpontzeko, betiere, Europar zuzenbidearen garapenez eta ezartzeaz baliatuta.

Europar Batasunaren proiektuaz baliatuta, gaia malgutasunez interpretatu daiteke, nahiz eta Espainiak ez duen malgutasunez jokatzeko. Izan ere, Espainiak Europa bera saihestu egiten du, jakin badakielako zer dioten Europako itunak: eskubideak babesten eta errespetatzen dituela, eta, uneoro, onartuta lekuan lekuko historia, gizartea eta justizia.

Eta ondo baino daki zein diren beharrizanak, hain zuzen ere, gure sistema Europar Batasunaren errealitatera egokitzeko beharrizanak. Eta nire ustez, Europako ideia hori ere

Chahoren liburuko irudi batzuetan ageri da eta Europako kontzeptuan laburtzen du Euskal Herriaren aniztasuna. Eta ordezkaria, zehatzago esateko, honakoa da: Iparraldeko gizona, hau da, Chaho bera. Alegia, Frantziako Errepublikaren nortasunari uko egin gabe Hegoaldearekin ere lotura nahi duen gizona.

Horiek horrela, Europar Batasunaren proiektuaren arabera, hegoaldeko Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria da Euskal Herriaren foru-izaera zuzenbidean bermatu behar duena. Eta, hain zuzen ere, Europak berak bermatzen du foru-izaerak indarrean jarraitzea. Are gehiago: Europako itun bateratzaileek eta gure zuzenbide bereziak interpretazio hori ahalbidetzen dute.

Adibidez, Europar Batasunaren itunaren 4. eta 6.3. artikulua honakoa dio: “Europar Batasunaren estatuen nazio-nortasuna errespetatuko du Europar Batasunak berak”. Eta arau horiek, bi gauza agintzen ditu: lehenik, estatu bakoitzaren berezitasunak haintzat hartu behar dira; eta, bigarrenik, estatu-kideen nazio-berezitasunak ere mantendu behar dira.

Eta, Euskal Herriari dagokionez, bere foru-izaerak berezitasun nabaria ematen dio eta, gainera, Europar Batasunak berezitasun hori onartzen du. Hala ere, teoria juridikoaren arabera, bestelakoa izango litzateke hori indarrean jartzea.

Egun, ez dago adostutako tresnarik berezitasun horiek –eskubide historikoak, azken finean– Europar zuzenean onartzeko. Baina, esaterako, Alemaniak, Austriak eta Belgikak beren Konstituzioak eraberritu dituzte eta, ondorioz, erakutsi dute berezitasunak kontuan hartu daitezkeela, baldin eta borondate politikoa badago.

Eta, horretarako, berezitasun edo eskubide historiko horiek duten garrantzia kontuan hartu behar da, hau da, hausnarketa politiko egokia eta proportzionala egin behar da. Eta, hain zuzen ere, Estatu gobernuari dagokio hausnarketa egitea, behin eginda, Europako erakundeetan erabiltzeko. Eta, lehen esan dugun bezala, horixe egiten dute Estatu batzuek: besteak beste, Alemaniak, Austriak, Belgikak eta Eskoziak. Eskozian esaterako, “Devolution” delako prozesua –eskumenak itzultzeko– egin dute. Azken finean boterea Westminster-etik Edinburgora itzuliko dute.

Euskal Herriari dagokionez, eskumen-titulartasuna eta bertatik eratorritako hainbat aplikazio berezi –esaterako, zerga eskumenak– salatu ditu Europar Batasunak. Izan ere, bere ustez Europar Batasunaren askatasun batzuk urratzen dituzte.

Horren harira, Europar Batasuneko kideen nazio-nortasuna errespetatzeko printzipioak –hain zuzen ere, Europar Batasunaren itunaren 6.3. artikulua honakoa dio: beharrezkoa eta bidezkoa da europar batasunaren barruko konstituzioaren giza-eskubideak babestea.

Baina, hori baino garrantzitsuagoa da Europako Konstituzioaren proiektuaren 2. artikulua, hain zuzen ere, Europar Batasunaren balio eta printzipioei buruzkoa:

Batasunaren oinarriko baloreak giza duintasuna, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbideko estatua eta giza eskubideekiko errespetua dira. Balore horiek estatu kide guztienak ere badira, aniztasuna, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza ezaugarritzat dituen gizarteak.

Esan gabe doa, Europar Batasunera sartu nahi duten hautagaiek balio horiek errespetatu behar dituztela eta, jakina, baita dagoeneko kide direnek ere, betiere, nazioaren barruan izan ditzaketen arazoak zokoratuta.

Chahoren liburura itzulita, agian, bertako literatura-irudi horiek ere onartzen dute trantsizioa: foruetatik eskubide historikoetara garamatzen trantsizioa. Eta, gainera, gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen subiranotasun partekatua.

Gaur egun, Chahoren bidaia berbera erraz egin daiteke baina, baldin eta aldaketa handia kontuan hartzen badugu: izan ere, Euskal Herriari dagokionez, subiranotasunaren hiru elementu klasikoak desagertu dira: lurraldea, antolakuntza eta biztanleak. Eta zer esanik ez euroaren auzia!

4. IPARRALDEA ETA BERE ASKATASUN BATZUK

Chahok bere liburuan berehala aipatzen ditu askatasun batzuk. Eta horien adibide bezala honakoak aipatzen ditu: Zuberoak, Behenafarroak eta Lapurdik zituzten errespetu eta eskubideak, hain zuzen ere, gaskoien aurrean beraien produkzioak egiteko izan zituzten eskubideak. Zuberotarrek, esaterako, erabateko askatasuna zuten beraien produktuak saltzeko eta, Chahoren arabera, Euskal Herria osoan ere gauza bera gertatzen zen (16 or.). Horren erakusle, honela dio beste pasarte batean:

Hasta la revolución del 89, época en la cual la fusión libremente aceptada por los vascos les sometió al imperio de una ley común y a las oscilaciones retrógradas de la regeneración francesa [...] (18 or.)

Eta beste pasarte batean honakoa dio Lapurdira buruz:

[...] que Laburdi hasta la revolución francesa del 89 era una de las repúblicas de la federación euskariana [...] (46 or.)

Zuberoaren askatasunak ere aipatzen ditu, izan ere, Chaho Zuberotarra zen:

Los Vascos de Zuberoa vivieron hasta la revolución del 39 bajo el imperio de un fuero o Derecho escrito en el reinado de Francisco I. Esta recopilación de leyes y costumbres conservadas por la pequeña república de los suletinos empieza así: por un uso de alta antigüedad los nativos y **habitantes** de esta tierra de Zuberoa son de origen libre y franco y sin tacha de servidumbre; nadie tiene derecho sobre sus personas o sobre sus bienes. Los suletinos llevan armas en todo tiempo para defensa de su país [...] (57 or.)

Pasarte horiek guztiak behin irakurrita, argi dago, Hegoaldeko Euskal eskubide historikoek babesa, nortasuna eta legezko indarra ematen zutela. Eta beste hainbeste Iparraldean, izan ere, nahiz eta konstituzio-xedapenik ez eduki eskubide historikoen kontzeptua ere aipatzen du M. LAFORCADE-k:

Dans une Europe en pleine mue, les Etats-nations, constructions artificielles, semblent aujourd'hui dépassés. Les revendications identitaires des minorités sont universelles. Pour éviter toute homogénéisation culturelle, chaque peuple doit prendre conscience de sa réalité et, pour cela, connaître son passé et retrouver son identité qu'il doit conserver tout en s'adaptant à la

société moderne. Or, le peuple basque, plus que tout autre, possède des caractères propres qu'il a préservés tout au long de son histoire, du moins en Iparralde jusqu'à la Révolution de 1789.

Son système juridique, qui servait de fondement à son organisation sociale, ne fut pas influencé par le Droit romain qui, partout ailleurs en Europe occidentale, modifia profondément la tradition juridique populaire. Conçu par et pour une population rurale, il a été élaboré à partir des maisons auxquelles s'identifiaient les familles et qui, comme elles, se perpétuaient à travers les siècles, donnant à la société basque une grande stabilité⁵.

LAFOURCADEk berak ere, Iparraldeko askatasunak eta berezko eredu en berri ematen du, eta adibide gisa Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoa aipatzen ditu:

Et elle ne se limitait pas à la famille, à ses membres et à ses biens. Elle s'étendait au groupe social tout entier. Chaque maison, participait, par l'intermédiaire d'un représentant, le maître vieux ou le maître jeune, à l'administration de la communauté paroissiale dans un système de démocratie directe, à base familiale. Et chaque paroisse déléguait des procureurs, munis d'un mandat impératif, à l'assemblée générale du pays, qui était le Biltzar en Labourd, le Silviet en Soule et les Cours générales des vallées et des pays composant la Basse-Navarre. Dans une société sans Etat, le pouvoir appartenait aux maîtres de maison.

Les Etats généraux institués en Basse-Navarre par Henri II d'Albret, en 1523 après l'invasion de son royaume par Ferdinand le Catholique en 1512 et la séparation des deux Navarres, furent calqués sur les antiques Cortes du royaume de Navarre. Dès lors, ils ne se différenciaient pas des autres Etats généraux ou particuliers du royaume de France auquel la Basse-Navarre fut incorporée en 1620. Ils étaient composés de représentants des trois ordres : Noblesse, Clergé et Tiers-état, chacun ayant une voix.

En Soule, où la féodalité avait aussi pénétré, on trouvait une organisation intermédiaire entre celle de droit commun et celle des assemblées basques ; au Silviet, assemblée populaire, s'était ajouté le grand corps qui réunissait les nobles et les clercs, lesquels n'avait, comme le Silviet, qu'une voix. Et, en 1730, la Soule perdit ses institutions ancestrales et fut assimilée aux autres pays d'Etats qui subsistaient en France. Seul le Biltzar du Pays de Labourd conserva jusqu'à la Révolution de 1789, son organisation ancestrale. Et c'est en Labourd qu'on retrouvait le mieux, à la veille du grand bouleversement révolutionnaire, les institutions démocratiques propres au peuple basque.

Celles-ci, issues de la longue et sage expérience des ancêtres, aboutissaient à un type de société unitaire, où les hommes étaient libres, où les maisons étaient juridiquement égales, où régnait l'égalité des sexes, où la propriété était collective, où l'individu s'effaçait devant l'intérêt de la communauté et où tous, solidaires et unis dans une même communauté d'intérêts, étaient responsables de l'avenir de leur pays⁶.

Beraz, honakoa begibistakoa da: historiako garai batean Iparraldeko lurraldeek eduki zituzten askatasunean oinarritutako ereduak eta erakunde-antolaketa berezi batzuk, betiere, bere arazoak konpontzeko eta barruko antolaketa finkatzeko. Eta, geroago, Nafarroaren zatiketaren ondorioz, Frantziako Errepublikaren indarra eta burujabetza onartu zituzten askatasun horiek beren bururako. Gaur egun, aldiz, Europar Batasunaren ereduak aukera emango lioke Iparraldeari beste bide batzuk egiteko Hegoaldearekin batera edo, behintzat, elkarlanean aritzeko aukera emango lioke.

5. Vid. LAFOURCADE, Maite. "Iparralde ou las provinces du Pays Basque nord sous l'ancien régime", *Euskonews & Media* n° 3, <http://www.euskonews.com>

6. Ibid.

5. ONDORIOAK

Behin aurreko guztia esan eta gero, segidako ondorioak aipatu behar ditut:

- Chahoren nortasun bereziaren ezaugarriak ageri dira liburuan: euskal herriaren zalea, Zuberotar petoa, abertzalea eta, batez ere, askatasunaren aldekoa zen Chaho. Bere ikuspegia erromantikoa zen, bai Euskal Herriari buruzkoa, bai munduari buruzkoa.
- Nire ustez eta bide metaforikoaz baliatuta, Chahoren liburuaz baliatuta segidako kontzeptuak lotu ditzakegu egun: kontzeptu politiko eta juridikoak eta Euskal eskubide historikoak. Hain zuzen ere, Chahok foruak babesten zituen bezala, Iparraldean eta Hegoaldean. Eta, gaur egun, kontzeptu horiek agertzen dira, bai Gernikako Estatutuan, bai Espainiako konstituzioan. Beraz, neurri handi batean Euskal Herriko “Konstituzioak” dira.
- Baina hori guztia ez da erraza ulertzen edo, agian, eguneratzen; izan ere, nire ustez, Chahoren liburuaren irakurketa poesiaz eta erromantizismoz beteta dago. Eta, aldiz, askatasuna eta foruen defentsa egun, erabat lotuta daude burujabetza edo gatazkarekin, betiere, politikaren eta zuzenbidearen arabera. Edonola ere, Chahoren metaforak ere baliagarriak izan daitezke Euskal Herriaren aniztasuna bermatzeko eta eskubide historikoak eguneratzeko.

6. BIBLIOGRAFIA

ARRESE, J. “Descentralización universal o el fuero vascongado”, Madrid, 1873.

BENGOETXEA, J. R. “El futuro de Euskadi y el futuro de Europa”, *Jornadas de Estudio sobre la Propuesta del Lehendakari*, Donostia : Universidad del País Vasco, 2003.

CAÑO, J. “Los derechos históricos en el Siglo XX”, en *Derechos Históricos y Constitucionalismo útil*, Fundación BBV, Bilbao 2000.

CASTELLS ARTECHE, J. M. “El hecho diferencial de Vasconia”, FEDHAV, 2007.

CHAHO, A. “Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos”, Auñamendi ed., 1976.

EZEIZABARRENA, X. “Los Derechos Históricos de Euskadi y Navarra ante el Derecho Comunitario”, in *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho*, nº 19, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2004.

EZEIZABARRENA, X. “La ciaboga infinita: una visión política y jurídica del conflicto vasco”, Alberdania, 2005.

HERRERO DE MIÑÓN, M. “La titularidad de los Derechos Históricos vascos”, *Revista de Estudios Políticos*, nº 58, 1987.

HERRERO DE MIÑÓN, M. “Derechos Históricos y Constitución”, Taurus, 1998.

LAFOURCADE, M. “Iparralde ou las provinces du Pays Basque nord sous l’ancien regime”, *Eusko-news & Media* nº 3, <http://www.euskonews.com>

LAFOURCADE, M. “Las instituciones tradicionales y públicas de la Vasconia continental”, *Eusko-news & Media* nº 38, <http://www.euskonews.com>

LOJENDIO IRURE, I. "La Disposición Adicional Primera de la Constitución española", IVAP, 1988.

LOPERENA, D. "Unidad constitucional y actualizaciones generales y parciales de los Derechos Históricos", en *Jornadas de estudio sobre la actualización de los Derechos Históricos vascos*, UPV-EHU, 1985.

—. "Derecho histórico y régimen local de Navarra", Gobierno de Navarra, 1988.

TAMAYO SALABERRÍA, V. "La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo 1975-1979", IVAP, 1994.